

## BEZEROEN SEGMENTUA

Azpimarragailu elektroniko hau sortu dugu eta oso praktikoa iruditzen zaigu edozein pertsonarentzat, orrialde fisiko batean idatzita dagoen zerbait, digitalera pasatzen baitu.

Gure produktua gehienbat ikasleei zuzenduta dago, zehazki, batxilergoan edo unibertsitatean dauden ikasleei. Hauek, beraien egunerokotasunean denbora falta izaten dutenez, apunteak egiten denbora murrizten laguntzen die gailu honek.



Azpimarragailu hau, idazkari lan antzekoa egiten duten langileek ere erabil dezakete euren lan denbora murrizteko. Hortaz gain, dokumentu fisikoekin lan egiten duten pertsonak, hainbeste material fisiko izan beharrean, digitalean izatea ideia hobea dela deritzogu. Gainera, material fisiko hauek galdu egin litezke, baina digitalki izanez gero, dena sarean gordetzen denez, ez lirateke inoiz galduko. Material fisikotik-digitalerako aldaketa burutzeko ere gailu honek asko lagun dezake.



Horretaz gain, gure produktuak inprimagailu funtzioa duenez, azpimarratutakoa kopiatu eta beste paper batera traspasatzeko aukera ematen du. Honek, eskemak edota laburpenak egiteko balio du, baita beste hainbat dokumentu inprimatzeko ere. Beraz, gure bezeroen segmentua, oraindik eta jende gehiagoarentzat da.

Ondorioz, laburbilduz, gure bezeroen segmentua honakoa izango litzateke: ikasleak, idazkariak, irakasleak, zerbait inprimatu nahi duten pertsonak...

